Bestelako Xedapenak

HERRIZAINGO SAILA

2619

EBAZPENA, 2010eko apirilaren 21ekoa, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariarena, Vitoria-Gasteizko 1 zenbakiko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegiak bideratu duen administrazioarekiko auzi-errekurtsoan (212/2010-A zenbakiko Prozedura Laburtukoa) interesa izan lezaketenak deitzen dituena.

Goian azaldutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa (212/2010 zenbakiko Prozedura Laburtukoa) aurkeztu da gora jotzeko errekurtsoaren presuntziozko ezespenaren kontra jarritakoa. Errekurtso hori Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariaren 2008ko otsailaren 8ko (martxoaren 5eko EHAA, 46 zk.) Ebazpenaren bitartez deitutako Ertzaintzaren Ikuskapen Eskalako Ikerketa Kriminaleko Ofizialondo Kategorian sartzeko hautaketa prozeduraren Epaimahai Kalifikatzailearen 2009ko apirilaren 6ko Akordioaren kontra jarri zen. Eta, Vitoria-Gasteizko 1 zenbakiko Administrazio Auzietako Epaitegiak jatorrizko administrazio-espedientea bidaltzeko eskatuta, Administrazioarekiko Auzi Eskumenari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, ondorengo hau jakinarazten dut: aipatutako prozeduran interesatuta dauden guztiak euren interes legitimoen defentsan azal daitezela, egoki baderitzote, bederatzi eguneko epean, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Arkaute, 2010eko apirilaren 21a.

Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendaria,
ELENA MORENO ZALDIBAR.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

2619

RESOLUCION de 21 de abril de 2010, de la Directora de la Academia de Policía del País Vasco, por la que se emplaza a los posibles interesados en el recurso contencioso-administrativo al procedimiento abreviado 212/2010-A, que se sigue en el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo n.º 1 de Vitoria-Gasteiz.

Habiéndose interpuesto el recurso contencioso-administrativo Procedimiento Abreviado 212/2010 identificado en el encabezamiento, contra la desestimación presunta por silencio administrativo del recurso de alzada interpuesto contra el Acuerdo de 6 de abril del Tribunal Calificador del proceso selectivo para ascenso a la Categoría de de Suboficial de Investigación Criminal de la Escala de Inspección de la Ertzaintza, convocado por Resolución de 8 de febrero de 2008 (BOPV n.º 46, de 5 de marzo), y habiéndose solicitado por el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo n.º 1 de Vitoria-Gasteiz la remisión del expediente administrativo original, de conformidad con lo previsto en el Artículo 49.1 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, por la presente se emplaza a todos aquellos que puedan ostentar la condición de interesados en el procedimiento de referencia para que, en el plazo de nueve días, contados a partir del siguiente a la publicación de la presente en el Boletín Oficial del País Vasco, comparezcan en el procedimiento citado en defensa de sus legítimos intereses, si así lo considerasen oportuno.

En Arkaute, a 21 de abril de 2010.

La Directora de la Academia de Policía del País Vasco,
ELENA MORENO ZALDIBAR.